

txintxarri



Erraldoia egin du handi

David Heras lasarteoriatarra Goya sarietara izendatuta dago, 'Handia' filmeko efektu bereziengatik / 8-9

DAVID HERAS

Michelin II, aurrera

Hotel bat, Lidl, Norauto eta gasolidengi bat eraikitzeko proiektua martxan jarri du udalak / 4

Azkortera mendi martxa egin dute, erraustegiaren proiektuari ezezko borobila emateko / 2

Ibarburuk eta Martinek igeriketako distantzia luzeko Euskal Herriko txapelketa irabazi dute, Lasarte-Orian / 11

- Autoikaskuntza mintza-saioarekin
- Euskarako agiriak: A1, A2, B1, B2 eta C1/EGA
- Euskalduntzeko maila guztiak
- Ordutegian malgutasuna

Munteri AEK euskaltegia


Geltoki kalea, 17, behea • 20160 Lasarte-Oria
943 37 28 63 - lasarte@aek.eus
www.munteri.blogspot.com.es

aek

euskara praktikoa

**% 100
AFEKTIBOA**

Eman izena





Okendo plazako ekitaldiari ekin aurretik, herrian barrena manifestazioa egin dute. TXINTXARRI

Goi-tentsioko linearen proiektuari, ezezko ozena

Errausketaren Aurkako Mugimenduak deituta, Lasarte-Oriako eta inguruko herrietako biztanleak elkartu dira Okendo plazan, erraustegiari eta hura energiaren hornitzeko azpiegiturari ezezko esateko. Ekitaldia hasi aurretik, proiektuaren inguruko informazioa jaso dute Azkorten

Iñigo Gonzalez

Erraustegiari eta hura energiaren hornitzeko goi-tentsioko linearen proiektuari ezezko esan diote Lasarte-Oriako eta inguruko herrietako hainbat biztanlek, ozen eta garbi, Okendo plazan. Deialdia Errausketaren Aurkako Mugimenduak egin du. Plazako ekitaldia hasi aurretik, mendi martxa egin dute Azkorterara, eta egitasmo horren nondik norakoak ezagutu dituzte. Ondoren, Okendora jaitzi dira. Iritsi aurretik, herrian barrena manifestazioa egin dute, *Goi-tentsioko linearik ez! Erraustegia gelditu* lelopean.

Erraustegitik 500 metrora dago Landaberri LH ikastola. Bertako zenbait ikasle eta irakasleek parte hartu dute ekitaldian, euren kezka adierazteko asmoz. Hiru ikasle igo dira oholtzara aurrena, eta mezu garbi bat bidali dute: "Agintariei eskatu nahi diegu gure osasunarekin ez jolasteko".

Irakasleek gero hartu dute lekukoa, azken asteetan zeresana eman duen afixa eskuetan hartuta. Marijo Vivasek hitz egin du guztien izenean. Esan du "presio handia" sentitu dutela

irakasleek asteotan pankarta hori dela eta. Udalak eta Hezkuntza Ordezkaritzak kentzeko eskatu diete. Azkenean, erabaki dute eskola eremutik at uztea, eta plazara ekartzea. Dena dela, hondakinen gaia jorratzen segituko dute: *Agenda 21* programan ari dira lanean, eta zaborren kudeaketa da gaia.

Umore ukitua ere izan du Okendoko ekitaldiak: *Ballakuak* esketxa oholzaratu dute herriko hiru atso ezagunenek. Eta herritar talde gazte batek *Hartu nahi dut arnas* abesti ezagunari koreografia jarri dio, oholtzan.

"Borrokan jarraitu behar dugu"

Aire Garbia plataformako kideek manifestu bat irakurri dute gero. Errausketaren Aurkako Mugimenduak idatzi du: "Tramitean dago goi-tentsioko linearen egitasmoa, eta erraustegiaren obrak presaka ari dira egiten agintariak, legegaldi honetan nola edo hala bukatzeko. Horren aurrean, borrokan jarraitu behar dugu, ez dugu etsi behar; goi-tentsioko lineari eta erraustegiari ez!".

Bost kilometro pasatzeko luzera edukiko luke goi-tentsioko lineak. Hernani eta Urnieta bitarteko mugatik hasi, Azkorteke ermita zeharkatu eta erraustegiraino iritsiko litzateke. 132 kilovoltete potentzia edukiko luke. Guztira, 21 dorre jarriko litzukete, 30 eta 36 metro arteko luzerakoak. Egitasmo horren aurka daudenek salatu dute ingurugiroan "eragin handia" izango lukeela, zuhaitz asko moztuko litzuketelako dorreak jartzeko. Gainera, zuhaitz gehiago ezingo lirarteke landatu. Basoak eta nekazari lurak zeharkatuko litzuzte azpiegitura horrek.

"Negozio bikaina izango da Iberdrola multinazionalarentzat", salatu du Errausketaren Aurkako Mugimenduak. Erraustegiaren ondoan eraiki asmo duten Klima Aldaketa Ikertzeko Zentroa ere izan dute hizpide: "Erraustegia berdez margotzen saiatzen ari da Gipuzkoako Foru Aldundia, modurik zaborrean; errauste planta, inoiz martxan jarriko balitz, Gipuzkoako berotegi-efektuko bigarren gas sortzaile handiena izango litzateke".

Otsailaren 24an manifestazioa egingo dute, Donostian, 17:30ean.



TXINTXARRI

Gidabaimena euskaraz saritzeko

Buruntzaldeako udaletako Euskara sailek esfortzu handia egiten dute gidabaimena euskaraz ateratzea bultzatzeko, eta, horretarako, inguruko autoeskoletan egiten dute lan. Gero eta gehiago dira gidabaimena euskaraz ateratzen dituztenak; aurten 103 dira. Euskararen aldeko hautua egin dutenak saritzeko, zozketa egin dute, Usurbilen. Guztira, eskualdeko bederatzi pertsona saritu dituzte; Alex Salsamendi Galan herritarra horien artean da.



ZUBIETAKO LANBIDE ESKOLA

Txileko ikasleak, Zubietan

Beste urtebetez, Txileko hainbat tekniko Zubietako Lanbide Eskolara joan dira formazioa jasotzera. Energia berriztagarrien inguruko formakuntza jasoko duten hogei ikasle iritsi dira aurten, eta bederatzi hilabetez arituko dira ikasketak egiten. Eguzki Energia Fotovoltaikoaren eta Eraikinen Energia-Eraginkortasunaren eremuetan espezializatuko dira guztiak.

Mendekotasunik ez duten adinduentzat, 'Kontent-tú' zerbitzua

Gipuzkoako Foru Aldundiko lege erreforma dela eta, 2018. urtetik aurrera mendekotasunik ez duten pertsona adinduei eguneko arreta egiteko gune bat eskaini behar diete udalek. Hori horrela, urtarrilaren 8an *Kontent-tú* zerbitzua jarri zuen martxan Lasarte-Oriako Udalak, Biyak Bat erretiroa hartutakoekin elkartean.

Zortzi pertsona biltzen dira Biyak Bat elkarteke gela batean, eta hainbat ekintza egiten dituzte. Ordutegia honakoa da: astelehenean ostiralera, 10:30etik 13:30era.

Erabiltzaileek gauza berriak ere ikasten dituzte; teknologia berriekin trebatzen dira. "Tabletetan ariketak egingo dituzte, eta senideek aplikazio bat ere izango dute", azaldu dute zerbitzuaren bultzatzaileek. 65 urte baino gehiago dituztenei irekia dago zerbitzua.

Aterpearen II. bilkura, mende laurdenari begira

Lasarte-Oriako dendarien eta ostalarien elkarteak bazkide berriei ongietorria eman die, eta urteko ekintzak jakinarazi ditu. Estetika jardunaldiak egingo dituzte aurten. Urte berezia dute aurretik: maiatzean elkartean 25. urteurrena ospatuko dute

Txintxarri

Aterpeak ongietorria eman die bazkide berriei, aste honetan egindako II. bilkuran. Lasarte-Oriako merkatarien eta ostalarien elkarteak aurten egingo dituzten ekitaldien berri eman dute. Denen artean, arreta berezia jarri diote bati: elkarteak 25 urte beteko ditu maiatzean, eta hilabete horretan jardunaldi bereziak egingo dituzte urtemuga berezi hori ospatzeko.

Villa Mirentxuko Laranjaondoan patioan egin dute bilkura. Udal ordezkariak ere gerturatu dira bertara. Ramon Ormazabal Aterpeako presidentek gidatu du ekitaldia, eta elkarteak sortu zeneko helburuak gogora ekarri ditu: "Hasteko, bazkideen interesak defendatzea erakundeen aurrean. Bestetik, sektorea eta herria dinamizatzea. Eta azkenik, herritik kanpora egin diren erosketak nolabait galaraztea".

Herriko ekonomia indartzeko, berebiziko garrantzia dute negozio txikiek, eta horien balioa nabarmendu du Ormazabalek. "Dendarik eta tabernarik gabeko herri bat hilda dago".

Idea horretatik dator, hain zuzen ere, urteurrena ospatzeko leloa: *25 urte herrigintzan zurekin*. Eskerrak eman dizkio Aterpeako presidentek ospakizuna



Aterpeako kideak udal ordezkariak lagunduta, Villa Mirentxun. LASARTE-ORIAKO UDALA

prestatzen lagundu dutenei. "Besteak beste, Unai Arrutiri urtemugaren logoa prestatzeagatik".

Aurreko urteetan egin moduan, ekitaldi ugari prestatuko ditu elkarteak 2018an. Horien artean bada bat nabarmena; lehen aldiz ile apainketari eta estetikari buruzko jardunaldiak antolatuko ditu.

Aterpeako jaialdia

Maiatza erdialdean ospatuko dituzte herriko negozioek Aterpearen 25. urteak.

Horretarako, maiatzaren 14tik 19ra bitartean "jai giroan" jardunaldiak egingo dituzte. Urte horietan guztietan Lasarte-Oriak izandako bilakaera aztertzeak argazki erakusketa bat egingo dute. Txu-txu tren eta beste hainbat ekintza izango dituzte, hala nola, herriko musika eta dantza elkarten emanaldiak. Jatekoak ez du huts egingo. Parrila bazkaria egingo dute maiatzaren 19an, Okendon. Eta ospakizunekin amaitzeko, afari eta dantzaldi bat egingo dute Maialen Chourraut kiroldegian.



NEURE KABUZ

MAILU ARRUTI

Zeren izenean?

Zenbat jipoi eman eta jasan dira "maitasunaren izenean" sarritan akabatzeraino. Gehienetan emakumeek eta haurrek jasotakoak.

Zenbat gudu Jaungoikoaren izenean? Erdi Aroan Eliza katolikoak bultzatuak. "Santa Cruzada". Francoren alde egin zuen Eliza katoliko zatiak ere, errepresio hura guztia halaxe justifikatu zuen. Jaungoikoaren izenean. Yihad. Musulmanek aurrera daramatena. Sarraski latzak bai. "Ala handia da!", oihu eginez.

Arrazoi politikoak defendatzeko ere erabili izan da bortizkeria. Gure herrian duela gutxi arte.

Legearen izenean zenbat aldiz urratzen dira giza eskubideak? Urrutira joan gabe ikusten ditugu egunero.

Sexu jazarpena azken aldian Hollywoodean ahotsa hartzen ari dena.

Gizon eta emakumeen eskubide (ez)berdintasunean. "Brecha salarial" esaten diote. Zenbait kasutan erretena ez, arroila dago batzuen eta besteen arteko lan berdinen lansarian.

Aberats ala pobre, emakume ala gizon, lehen munduan ala hirugarrenean jai, galtzaile ala garaile izango zara.

Legea bete behar da. Baina legea pairatzea tokatu zaigu sarritan. Beste batek egin duelako bere neurria eta bere interesak defendatzeko.

Eta demokraziaren izenean zer ari gara ikusten?

Herria omen da soberanoa. Herriak diona errespetatzen da. Ez da ba hori Katalunian ikusten ari garena azken aldian. Bi aldiz bozketak irabazi dituen herri nahiaren gainetik EPAILEEK agintzen dute.

Bortizkeriak aurpegi asko ditu. Batzuei odola darie. Beste batzuek fisikoki ez dute odolik isurtzen, baina bai, bortizkeria eta gehiegikeriak dira Beraz, Justiziaren izenean...

Estatuak "trofeoa" behar du. Puigdemonten burua nahi du.



TXEMA VALLES

Herrigintza hizpide, Lasarte-Orian

Xabier Barandiaran soziologoak eta Deustuko Unibertsitateko irakasleak herrigintzari eta komunikazioaren gizarteari buruz jardun du BAI plataformak antolatutako hitzaldian. Barandiaran Gipuzkoako Ahaldu Nagusi Markel Olanoren kabinete burua da. Parte hartzean oinarritutako kultura bultzatu behar dela uste du.

Etxetik joateko bultzada

Gazteen emantzipazioa lantzeko "eskola" martxan jarriko du udalak. Gazteen autonomia pertsonala sostengatzeko baliagarri izango da. Otsailean hasi eta ekainera bitarte, hainbat hitzaldik eta lantegik osatuko dute eskola.

Asteartean hasiko da egitasmoa. Egun horretan, *Hipotekek eta bankuak. Zer jakin hipoteka eskatu aurretik?* hitzaldia izango da Gaztelekuan. Etxebizitza erosteko hipotekek nola kudeatu eta hipoteka nola

ezeztatu jakin ahal izango dute bertaraten direnek. Arratsaldeko 19:00etan izango da hitzordua.

Otsailaren 8an, bigarren hitzaldi bat egingo da: *Zure curriculum. Lana aurkitzea erraza (goa) da nola bilatu badakizu*. Hau ere gaztelekuan egingo dute, 19:00etan, eta curriculum prestatzen ikasiko dute. Aurkezpen-gutuna, esperientziadun eta esperientziarik gabeko curriculum, eta bertan sartu edo ekidin behar den informazio guztia bildu ahal izango da. Horrekin batera, lan elkarrizketa prestatzen ere ikasiko dute.

Otsailaren 15ean azken hitzaldia izango da. Horretan, *Emantzipatu, noiz?, nola?* gaitik abiatuta, gurasoen etxetik joateko unean jakin beharreko zenbait datu emango dituzte: alokairuan inguruko informazioa, etxebizitzaren erosketak, etxebizitza libreak, etxebizitza babestua, eta abar. Aukera bakoitzaren alde onak eta txarrak azalduko dituzte, baita babes ofizialeko etxebizitza eskuratzeko bete beharreko baldintzak ere.

Otsailaren 22an hasi eta martxoaren 22ra arte sukaldian trebatzeko ikastaroa izango da. Ostegunetan egingo da, 18:00etatik 20:00etara.



TXINTXARRI

Michelin II: hotela, Lidl, gasolindegia eta Norauto

Lasarte-Oriako Udalak eta Plaincok akordioa egin dute; hiru izardun hotela, prezio baxuko gasolindegia, Lidl supermerkatua eta Norauto tailerra eraikiko dute Michelin II gunean. "Langabezian dauden 100 herritar kontratatuko dituzte", esan du Zaballosek

Txintxarri

Donostialdea bisitatzea etortzen diren bisitariei eskaintza berria egin, eta bertakoei zabaltzeko asmoz, Michelin II gunea eraikitzeke lehen urratsa eman du Lasarte-Oriako Udalak. Asteazken eguerdian sinatu zuen Jesus Zaballos alkateak elkarlanerako hitzarmena proiektua aurrera eramango duen Plainca sustatzaile enpresarekin. Hiru izardun B&B kateko hotela, prezio baxuko gasolindegia, Lidl supermerkatua eta mekanikako Norauto etxeak osatuko dute gunea. Futbol zelaiaren ondoan eraikiko dute, herriaren aldirietan. 2019. urterako amaitua egotea espero dute.

Proiektuak berebiziko garrantzia du Zaballosentzat: "Langabezian dauden ehun lasarteoriatar kontratatuko ditu Plaincok, eta gutxienez bost urtetarako lan kontratuak egingo dizkiete".

Langileen kontratazioa

Herritarrek Lanbideren bidez eman behar dute lanpostu horietan aritzeko izena. Udalak ez du lan postsa kudeatuko, eta, beraz, Zaballosek herritarrei dei egin die Lanbiden argitaratzen diren lan eskaintzei adi egoteko.

Udalak adierazi duenez, enpresak ez baditu 100 herritarrentzat lanpostuak ziurtatzen, zigorra oradindu beharko du. Kasu honetan,

30.000 euro betetzen ez den postu bakoitzeko.

Plainco enpresa da Michelingo proiektu berriaren sustatzailea, eta bertako ordezkari Jose Rodriguezek azaldu duenez, bi urte eta erdiko aurre lanketa egin dute Lasarte-Oriako garapen industria zehazteko eta azken proiektua finkatzeko: "Herritarren beharretara ondoen egokitzen den proiektu bat egin nahi genuenez, motela izan da prozesua".

Garapen industriara sarbidea eta ibilgailuen trafikoa errazteko, errotonda bat egingo dute eraikinaren inguruan. Horrekin batera, irisgarritasuna



Udal ordezkariak eta Michelin II garapen industriako enpresen ordezkariak. TXINTXARRI

bermatzeko, errepide bat gehituko dute Michelingo kirolgunearen eta komertzio gunearen artean.

Zonalde estrategikoa

Lasarte-Oriaren kokapen geografikoa erakargarria da Donostia eta ingurua ezagutzera etortzen direnentzat. Hori dela eta, multinazional ugari hartu dituzte herriko eta inguruko lurak, euren merkatal guneak

ezartzeko. Urbil merkataritza gunea, Mercadona, Decathlon, Leroy Merlin (lanak hasteko daude oraindik), Mc Donald's, Lidl eta beste hainbatek inguratzen dute Lasarte-Oria.

Herriko dendekez ikusi dute azken urteetan multinazionalen hedapena. Izan ere, Urbil gunea ezarri zutenetik negozio askok itxi egin behar izan dute.

Sara Cozar eta Joseba Apaolaza, taula gainean

'Ergela' antzezlan eskainiko dute aktore euskaldunek larunbatean, Manuel Lekuona kultur etxeko agertokian. Horrekin batera, zinema, musika emanaldiak eta beste zenbait kultur ekintza izango dira otsailen, herritarren gozamenerako

Txintxarri

Froga psikologiko batzuetara aurkeztuko da protagonista, diru pixkat irabazteko asmoz. Bere arazo ekonomikoak konpontzeko diru erraza irabazi asmoz joango da frogak egitera, baina tranpa eta iruzurra aurkituko ditu kultur etxeko areto nagusiko oholtzan. *Ergela* antzezlanak zabalduko du otsaileko kultur agenda. Bihar, larunbatean, 20:00etan izango da emanaldia, kultur etxeko areto nagusian, eta 5,50 euroko kostua izango dute sarrerek.

Haurrentzako eta helduentzako zinea izango da otsailaren 4ean. Txikienek *Paddington 2* (euskaraz)



Asteazken goizean aurkeztu zuten otsaileko kultur agenda. TXINTXARRI

filmaz gozatu ahal izango dute, 17:00etan, 3,80 euroren truke. Helduentzako, berriz, *El gran showman* emango dute, 19:30ean (5,50 euro).

Musika eskolako gazteek urtero eskaintzen duten Kontzertu Bufoak ere ez du hutsik egingo aurten. Otsailaren 8an izango da emanaldi dibertigarria, 19:00etan, kultur etxean.

Okendo Zineforumak, *The disasters artist* filma ikusteko aukera eskainiko du, 5,50 euroren truke. Otsailaren 9an izango da hitzordua, 22:00etan.

Danok Kideren eskutik itsaspeko mundua ezagutzeko tarterik ere izango da aurten. Otsailaren 12an, 19an eta 26an hiru film eskainiko dituzte, doan, 19:00etan, kultur etxean.

Opera zaleentzat ere hitzordu garrantzitsua izango da otsailaren 14an; *Rigoletto* obra eskainiko da, digitalean. 19:00etan izango da emanaldia, eta bi preziotan salduko dituzte sarrerek: aurrez, leihatilan 7,50 eurotan, eta egunean bertan bederatzi eurotan.

Haurrentzako antzerkia izango da hilabete erdialdean. Otsailaren 17an *Go!azen* antzezlan famatua

izango da berriz ere Lasarte-Orian, otsailaren 17an. Emanaldi bakarra eskainiko dute. Sarrerek atzo jarri zituzten salgai, baina bi ordu igaro baino lehen agortu ziren guztiak.

Haur eta helduen zinemaren bigarren saioa izango da hilaren 18an. Haurrentzako *Coco 106* filma proiektatuko dute (3,80 euro) 17:00etan, eta helduek, aldiz, *The disaster artist* ikusi ahaliko dute (5,50 euro), 19:30ean.

Okendo zineforumak ere bigarren saio bat egingo du otsailaren 23an. *El sacrificio de un ciervo sagrado* filma eskainiko dute horretan, 22:00etan, 5,50 euroren truke.

Hilabetearekin amaitu aurretik, beste hiru kultur eskaintza izango dituzte lasarteoriatarrek. Otsailaren 24an, Aterpea merkatarien elkarteak antolatuta, lehenengo ileapaindegi eta estetika jardunaldia egingo dute. Kultur etxean izango da, doan, 18:30ean.

Amaitzeko, haurrentzako eta helduentzako film bana emango dituzte: txikienentzako *Sola en casa*, eta helduentzako *Que baje dios y lo vea*. Aurrenekoa 17:00etan izango da (3,80 euro), eta helduena, berriz, 19:30ean, (5,50 euro).

Xomorroekin ituna, Euskal Inauterietan

Larunbata arratsaldean Zubietako eta Lasarte-Oriako herritarrek desfile koloretsua egingo dute. Hipodromoko zubian ituna sinatu ostean, giro ederra egongo da herriko kaleetan. Jaiari amaiera emateko, Kaxkamalo erreko dute, gaitzekin amaitzeko

Txintxarri

Duela hiru urte, Lasarte-Oriako Euskal Inauterien konpartsa itxuraz aldatu zuten. Euskal Herriko beste herrietako inauteriak aztertu eta bertako elementuak hartu zituzten, ekitaldi berritua aurrera eramateko.

Berrantolaketa horren barruan, beste herrien antzera, goizean puska bila egitea adostu zuten. Ohikoa da ekintza baserri baserri egitea, baina antolatzaileek herriko elkarte gastronomikoekin hitz egin ondoren, horiek bat etorri ziren ekimenarekin. Era honetara, Sagardotegi plaza izango da puska bila doazen herritarren abiapuntua.

Arrieskalleta, Xirimiri, Udaberri, Ttakunenea eta Intza elkarteetara

hurbilduko dira, eta bakoitzean kantu eta dantza bat egingo dituzte. Baina gorputza eta ahotsa astintzeaz gain, elkartez elkarrekin mokadutxo goxoa jateko aukera ere izango dute parte hartzaileek.

Senidetzea

Zubietako plazan emango dio hasiera arratsaldeko ekitaldiak, 16:30ean. Bertan, *Axuri Beltza* eta *Barañain* dantzatuko dituzte Zubietako herritarrek.

Ostean, *Beha Nafarroako martxa*, *Kalejira* eta *Aranaz* doinuek alaituko dute hipodromoko zubirainoko kalejira. Lasarteoriatarrek egongo dira bertan zain, eta *muxikoa* dantzatzen egingo diete harrera.

Era berean, dantzatzeko gonbita egingo zaie, eta zubietarrek *manexak* dantza eskainiko dute.

Alkatea eta bere korporazioaren txanda izango da ostean. Xomorroi ongi etorria egin eta ituna sinatuko dute. Honen bitartez, xomorroak herrira sartu ahalko dira jatera, eta gaitzak sortzeari uko egingo diote.

Baina bada ituna betetzen ez duen xomorrorik: Kaxkamalo. Gizaki eta xomorroen artean adostutakoaren arabera, sutan erreko dute zigor moduan. Horretarako, Okendo plazara joango dira guztiak.

Kalejira hasi aurretik, zubietar eta lasarteoriatarrek senidetze dantzaldia egingo dute.



Hipodromoko zubian lasarteoriatar eta zubietarrek senidetzea antzezten dute. TXINTXARRI

Jarraian, koloreetako txantxo jantziek eta euskal doinuek erdiguneko kaleak alaituko dituzte.

Ondoko ibilbidea jarraituko dute: Hipodromo etorbidea, Tajamarreko biribilgunea, Kale Nagusia, Ola kaleko biribilgunea, Kale Nagusia eta Okendo plaza Bidean hiru geldione izango dira: Kale Nagusi hasieran, Tajamar biribilgunea ondoan, Kale Nagusia eta Ola kalea elkartzen diren biribilgunea egin ostean, eta udaletxe zaharraren parean. Horietan txantxoek dantza egingo dute.

Okendora iristean, erromeria eta suaren ekitaldia egingo dira. Azkenik, txokolatada goxoa

dastatuko dute plazan dauden guztiak.

Antolatzaileek azaldu digutenez, aurten berrikuntza modura, suziriak botako dituzte. Zubietatik ateratzean, hipodromoko zubitik kalejira abiatzean eta geldione bakoitzaren ostean entzun ahalko dira suziriaren hotsak.

"Suzirik konpartsa martxan jartzen dela iragarriko dute. Era honetara, lasarteoriatarrek konpartsa hasi eta herriko kaleetan barrena dabilela jakingo dute," azaldu dute antolatzaileek. Era berean, herritarrei gonbita egiten diete kalera txantxo jantzita atera daitezten, baita jaiaren parte har dezaten ere.



EUSKAL INAUTERIAK

OTSAILAK 3 · LASARTE-ORIA

11:00-13:30// Sagardotegi kaletik abiatuta, elkarreetan zehar **PUSKA BILA**

16:30// Zubietako plazan **ekitaldia**

16:45// Zubietatik Okendora **KALEJIRA**

17:00// Lasarteoriatarren **HARRERA**:

Lasarteoriatarren gonbidapen dantza eta zubietarren erantzuna

17:15// Zubietarren eta lasarteoriatarren **SENIDETZE DANTZALDIA**

17:30// Kalejira herriatik

19:00// Erromeria eta suaren **ekitaldia**

Amaitzeko, **txokolatada** goxoa Okendo plazan

Puntua

9-12 urte bitartekoentzat

ASTELEHENETAN

Otsailaren 19tik martxoaren 19ra, 18:00etatik 19:30era, anbulategi gaineko 2. solairuko hitzaldi aretoan. Prezioa: 11€ Ttakuneko bazkideek (14€ besteek)

Izen-ematea: Ttakunen, 695 785 392an edo aisia@ttakun.eus-en



Iguarte

SAGARDOEGIA

- Eguneko menua
- Kaxuelitak
- Sagardotegi menua
- Kuadrilentzako menuak, prezio egokitan

Urte osoan zabalik, zatoz!!

Afaria eta musika zuzenean: **PSICOACUSTIC**



Irekiera ekitaldia otsailaren 3an

iguartesagardotegia@gmail.com. Tel.: 658 435 160
Asteasu poligonoa, Iguarte, 11. USURBIL (Urbil ondoan)

Euskararen transmisioa


HILABETE

Zorionak!!!



3 HILABETE

Etxeak du giltza



NOLA IKASTEN DUTE UMEEK

Familia



designed by freepik.com

4-7 HILABETE

"Komunikazioa haurren zorientasunean"

HITZALDIA

Otsailaren 8an

Udaletxeko Mercero hitzaldi aretoan

17:00etan

"Bizitza komunikazioa da. Hasieratik komunikazioan laguntzea onuragarria da haurarentzat. Komunikazioa eta haurren zorientasuna oso lotuta daude"

"Hizkuntza gure gizatasunari loturik dago. Haurrak hizkuntzaz jabetu nahi du bere nahiak adierazteko eta bere beharrak asetzeko"

"Komunikazioak haurren soziabilitateari laguntzen dio"



Paula Kasares

Hitzordua nahi?

Zatoz informazio gehiago jasotzera Euskara Zerbitzura edo eskatu ordua

Harremanetarako:
m.gorostiza@lasarte-oria.eus

Telefona:
943 37 61 84

Bizipen soziala



designed by freepik.com

Eskola

(2 urtetik aurrera)



designed by freepik.com

, guztion eskura

K?

GURASOEK ZER EGIN DEZAKETE?

Bikote euskaldunek:

Euskaraz hitz egin

Bikote mistoek:

Bakoitzak bere hizkuntzan hitz egin

Erdaldunek:

Motibazioa eta erabiltzeko aukerak eskaini

Jolasak

Jostailuak

Jokoak

Abestiak



designed by freepik.com



"Euskaraz hitz egiteko ohitura duzuen gurasoak ohiturarik ez duzuenekin elkartzen zaituzten egitasmoa, **GurasoLagun** dugu martxan"

"Haurrak ikastetxean dauden bitartean, gurasooi euskara-eskolak eskaintzen ditu **GurasoTegi** egitasmoak"

"**GurasoLandia** egitasmoan, **GurasoTegin** eta **GurasoLagunen** parte hartzen duten gurasoentzat eta haien seme-alabentzat aisialdi ekintzak eskaintzen ditugu"



Euskara
Batzardea
Lasarte-Oria



LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

David Heras, *Handia*-ren filmaketan. TXINTXARRI

"Helburua da inor ez ohartzea efektu bereziak daudela filmean"

DAVID HERAS 'HANDIA' ETA 'VERÓNICA'-KO EFEKTU BEREZIEN ARDURADUNA

Goya sarietan bi izendapen jaso ditu lasateoriatarrak. 'Handia' eta 'Verónica' filmeen efektu bereziak zuzendu ditu. Larunbat gauean jakingo da ea saria jaso duen.

Adrian Garcia

Ez dago oso urduri David Heras (Lasarte-Oria, 1975), baina baditu horretarako arrazoiak. Espainiako Goya sarietan bi izendapen jaso ditu. *Handia* filmaren efektu berezien arduraduna da lasarteoriatarra. Beste hitz batzuetan esanda: bera arduratu da Altzoko handia erraldoi egiten. Euskarazko ekoizpenarengatik ez ezik, *Verónica* filmaren efektu bereziengatik ere jaso dezake saria. "Bost izendapen jaso ditut

orain arte, eta zertxobait lasaiago nago. Saria irabazten badut ongi, eta bestela, ez da ezer gertatzen". Larunbat gauean jakingo da ea lortu duen garaikur preziatua. Informatikaria da ikasbidez, eta zinemazale amorratua. Orain hogeit bat urte hasi zen zinemaren industrian lanean, eta gauza asko bere kabuz ikasi behar izan ditu. Madrilen bizi da; telefonoz erantzun ditu TXINTXARRI-REN galderak.

Handia da Goya sarietako izarra. Hamahiru izendapen ditu, zurea

barne. Hitzaldia prestatu al duzu saria jasotzera joan behar izatekotan?

Ez. Irabazten badut, nahiago dut une horretan bertan pentsatzen eta sentitzen dudana esatea.

Euskal zinema indartzeko garrantzitsua da Handia-k lortu duen oihartzuna.

Bai. Eta niretzat, euskaldun naizen partetik, oso garrantzitsua da. Oroitzen naiz Garaikoetxea ikastolan Altzora eraman gintuztela erraldoia ikustera; burua lehertu zitzaidan. Txikia

nintzen, eta txundituta utzi ninduen. Urte asko geroago *Handia*-koak etorri zirenean esatera Altzoko erraldoiari buruz film bat egin behar zutela, segundo batean erantzun nien. Ez nekien nola egingo genuen erraldoia, baina nik barruan egon nahi nuen.

Zure lana ezinbestekoa izan da filmean. Zuk egin duzu handi Altzoko erraldoia.

Hori zen filmaren erronka nagusia. Eneko Sagardoi ez da pertsona txikia, 1,80 metro inguru ditu. Halere, zaila izan da 2,40 metroko erraldoia irudikatzea. Batez ere, pertsonaia nagusia delako, eta filmaren %80an agertzen delako. Bere plano ia guztiak landu behar izan ditugu.

Nola handitu duzue erraldoia?

Bi teknika erabili ditugu. Makillajekoek euskarri batzuk eta plastikozko esku batzuk egin zizkieten, itxura handiagoa emateko. Plastikozko esku horiek erabili ditugu gero besoak askoz ere luzeagoak egiteko. Baina akromegalia dutenek badute beste berezitasun bat: buru oso handia dute. Animazioaren bidez burua handitu diogu, eta masailalboak gehiago markatu dizkiogu.

Ordezko bat ere erabili duzue, ezta?

Bai. Saad izena du; 2,30 metro neurtzen ditu, eta jatorra bezain handia da tipoa. Beste pertsonaiekin zuzenean aritzen den uneetan, Saaden burua kendu eta Enekorena jarri dugu digitalki.

Efektu berezien aldetik, zer beste lan egin duzue Handia-n?

Hiru bloke nagusi egin ditugu. Batetik, Eneko erraldoi bihurtu dugu, aipatu ditudan bi teknika horiekin. Bestetik, elementu anakronikoak ezabatu ditugu. Izan ere, 2018. urtean gaude, eta gauza ikaragarri pila daude lehen ez zeudenak, hala nola, hodiak, elektrizitate lineak, antena parabolikoak... Hori guztia ezabatu egin dugu. Eta azkenik, Londres, Madril eta beste hirien irudikapen historikoa egin dugu.

"OSO POZIK NAGO NIRE HERRIAREN KULTURARI LAGUNDU AHAL IZATEAGATIK"

Zein izan da zuen informazio iturria hirien irudikapen historiko horiek egiteko?

Zuzendariak [Jon Garañok eta Aitor Arregik] asko ikertu dute, eta garaiko dokumentazio eta irudi asko aurkitu dituzte. Bestetik, User T38 ekoiztetxean dokumentalista bat dugu, eta oso ondo daki non bilatu guk behar genituen argazkiak. Horrez gain, Charlie, User T38eko efektu digitalen ekoizlea historialari amorratua da; jaingo maila duen frikia da.

Nola egiten duzue lan? Lehenengo filma grabatzen da, eta ondoren jartzen dizkiozue efektu bereziak?

Hasieran ekoizpen aurreko lan bat dago. Zuzendariak kontaktzen digute istorioa zein den, nola kontatu nahi duten, zer motako planoak egin nahi dituzten... Ondoren, azterketa bat egiten dugu, jakiteko zein den grabatzeko modurik onena, arazo teknikorik egon ez dadin gero. Eta azkenik, baldintza horietan filmatzen da. Ni grabazioan egoten naiz, dena ongi egiten dela ikuskatzeko. Hortik aurrera, lan egiten dugu grabatuta dauden irudiekin.

Orduan, oso gertukoa izan behar du zuzendarietako harremana.

Noski. Guk argi dugu; etengabeko komunikazio jarria egon behar du zuzendarien eta gure artean. Soilik modu horretan islatu dezakegu zuzendarietako buruan duten ideia. Uneoro hitz egiten dugu. Zer egin nahi dugu? Nola egin nahi dugu? Zer erakutsi nahi dugu? Zein da horretarako modurik onena? Denok bilatzen dugu ahalik eta pelikula txukunena egitea. Ez bakarrik nire efektu bereziei dagokienean; helburua da pelikula osoa ona izatea.

Ekoizpen osteko prozesuak zenbat denbora iraun zuen?

Bi zatitan grabatu da filma. Bloke handiena batetik, eta neguko eszenak, bestetik. Horregatik, ekoizpen osteko prozesua arraro samarra izan da. Hiru hilabetez lan egin genuen hasieran. Gero eten bat izan genuen neguan grabatzeko, eta beste bi hilabetez ekoizti genuen ondoren.

Zenbat pertsona aritu zareten lanean filmeko efektu bereziak jartzeko?

Jende asko; guztira, 30 inguru. Dokumentalistak, makillatzaileak, koordinatzaileak, ekoizleak...

Bikoizketaren antzera gertatzen al da efektu bereziekin? Alegia,

oharkabeen igarotzea al da zuen helburua?

Bi film mota daude. Batzuetan efektu bereziak elementu nagusia dira, eta pentsatuta daude ikusteko. Esaterako, espazio ontziak edo dinosauroak daudenean. Besteetan, efektu ikusezinak daude, *Handia*-koak bezala. Kasu horretan, dena ondo dago inor ez bada konturatzen efektuak hor daudela. Batzuetan etsigarria da; *Handia*-k 450 plano inguru ditu efektuekin, eta helburua da inor ez ohartzea.

Verónica filmaren efektu bereziengatik ere izendatuta zaude Goya sarietara. Oso lan desberdinak dira biak.

Bai. Kasu honetan badaude efektu ikusezin asko, baina beste asko agerikoak dira. Filmeko fenomeno paranormal guztiak egin ditugu, baita munstroaren irudikapen grafikoa.

Beste euskal filmetan ere parte hartu duzu.

Gero eta lan eskaintza gehiago ditut Euskal Herrian, eta oso pozik nago nire herriaren kulturari laguntzeagatik. *Errementari* filma bukatu dugu, eta hilabete barru estreinatuko da. Oso istorioa polita, eta lan digital handia du. 600 plano digital inguru ditu; lan asko dago irudiekin. Ezin dut gehiegi kontatu, bestela belarrondoko bat emango didate.

Urte asko daramatzazu efektu berezietan lanean. Nola sartu zinen sektore horretan?

Madrilera 1998. urte amaieran joan nintzen, eta ordutik nabil honetan lanean. Informatika eta diseinua ikasi ondoren, Donostian 3Dko *software* baten inguruan antolatu zuten lehen ikastaroa egin nuen. Praktikak egin nituen Madrilen, eta ordutik hemen geratu naiz. Asko ikasi behar izan dut nire kabuz.

Filmetan efektu berezi asko erabiltzen dira. Joera hori indartuko al da zineman hurrengo urteetan?

Efektu bereziek istorioa kontatzen laguntzen dute; horiek gabe askotan ezinezkoa litzateke kontakizuna garatzea. Une gozoa bizi du orain efektu berezien munduak, jende guztiak erabili nahi dituelako. Baina ezin da jakin zineman norantz joko duen. Eta hobe ez jakitea; horrela guk geuk aurkituko dugu. Zineman garrantzitsuena da istorioak kontatzea, eta istorio horiek behar dutenaren arabera laguntzeko egongo dira efektuak.



Ordezko bat erabili dute eszena batzuk filmatzeko, eta gero digitalki Eneko Sagardoiren aurpegia aldatu diote. DAVID HERAS



Elementu anakronikoak ezabatzeaz gainera, hirien irudikapen historikoa ere egin dute efektu bereziekin. DAVID HERAS



Aldaketak chroma baten gainean egiten dituzte. DAVID HERAS

Gipuzkoako txapelketa irabazi du Asier Pozok

Emaitza ikusgarriak lortu ditu asteburu honetan Buruntzazpi Txirrindularitza Eskolak; Pozo lehenengo, eta Carbayeda hirugarren geratu da kadeteen Gipuzkoako Pista Txapelketan

Txintxarri

Indartsu dabilta Asier Pozo eta Beñat Carbayeda. Indartsu dabil, oro har, Buruntzazpi Txirrindularitza Eskola. Bioracer ligako emaitzak berretsi ditu Pozok, eta Gipuzkoako Txapelketa eskuratu du larunbat honetan, Anoetan. Kadeteetan nagusi izan dira lasarteoriarrak. Carbayeda taldekideak lagundu dio podiumean, hirugarren koskara igota. Gainera, oso gutxiatik ez dituzte lortu lehen bi postuak; bigarrenarekin puntuak berdindu ditu Carbayedak. Markel Aristegi izan da taldeko beste ordezkaria; hamabigarren postuan bukatu du.

Bioracer ligan lehen 25 sailkatuek zuten txapelketan parte hartzeko eskubidea. Pozo berak irabazi zuen liga hori, orain dela aste batzuk. Oraingoan lau probatan lehiatu behar zuten kadeteek, egun berean; bi goizean eta beste bi arratsaldean. Lau lehiaketa horietan lortutako puntuak batuta osatu dute gero sailkapen nagusia. Pozok 138 puntu eskuratu ditu.

Carbayedak 125, bigarrenak bezainbeste. Aristegik 48 puntu irabazi ditu.

Goizeko lehen probatan oso estua egon da lehia. Scratch ariketan lehen postua lortu du Pozok, jokoan zeuden 40 puntuak poltsikoratuta. Carbayeda lehen postuetatik urrunago geratu da, zazpigarren, eta 28 puntu eskuratu ditu. Bigarrenetan, Tempo proban, bigarren egin du Gipuzkoako Txapeldunak, 38 puntu lortuta. Carbayeda lehen hamarren artean sailkatu da, bederatzigarren, eta 24 puntu eman dizkiote.

Arratsaldeko bi probatan eman dute kolpea lasarteoriarrak, eta sailkapeneko lehen postuak ziurtatu dituzte. Kanporaketan Pozok beste 40 puntu lortu ditu, lehenengo sailkatuta. Bigarren izan da Carbayeda, 38 punturekin. Azken proban, puntuaketa, txapelketako posturik txarrena lortu du Pozok, laugarren, baina nahikoa izan zaio txapela janzteko. Carbayeda bigarren izan da, eta podiumean taldekideari lagundu dio.

"Badago harrobia". Eugenio Pozo Buruntzazpi Txirrindularitza Eskolako kadeteen entrenatzailea pozik dago. Lasarte-Oriako eta Usurbilgo gazteek osatzen dute taldea, nahiz eta kasu honetan Pozo eta Carbayeda lasarteoriarrak izan. Oro har, kadeteek erakutsi duten maila "ikusgarria" da, entrenatzailearen hitzetan. Horren adierazgarri, Taldeen Kopan lortutako emaitza. "Bigarren egin genuen, Asturiasko selekzioaren atzetik. Izugarria da hori, kontutan hartu behar baita lurralde oso bateko gazteen talde bat dela selekzioa".

Baina Buruntzazpiko kadeteen arduradunak ez du atzera begiratu nahi; oraindik proba garrantzitsuak dituzte jokatzeko pistan. Espainiako Kopako azken proba jokatu dute otsailaren 10eko asteburuan, Mallorcan. Pozo gazteak Euskadiko maillotarekin lehiatuko du.

Bakarrik, denen aurka

Oso berdindua dago Espainiako Kopako sailkapena. Lehen postuan da Pozo, baina bigarrena



Pozo erdian eta Carbayeda eskubian Gipuzkoako txapelketako podiumean. E. POZO

eta hirugarrenarekin berdinduta dago.

Berez, aukera onak lituzke txapelketa irabazteko. Arazo bat du, ordea: "Balear Uhartetako Selektzioa kideak dira beste biak. Eta etxean jokatzeko dutenez, talde osoa eramango dute, eta haietako egingo dute lan". Euskadiko Selektzioak, ordea, aurrekontu arazoengatik, Pozo kadetea bakarrik bidaliko du. "Oso garestia da hegazkina, bizikleta eta beste materialak garraiatzea", azaldu Pozo entrenatzaileak. Asierren aita

da Eugenio. "Podiuma behintzat eskuratu beharko luke".

Beste txapelketa garrantzitsuak ere badituzte aurretik Pozok eta Carbayedak. Euskadiko Pista Txapelketa Tafallan jokatu dute, nahiz eta data zehazteko dute. Espainiako Txapelketan lehiatzeko ere hautatuak izan dira bi gazteak, Aste Santuan. Errepideko denboraldia hastear dute, baina bi modalitateak uztartuko dituzte Buruntzazpiko txirrindulariek. Ia asteburuz izango dute lasterketa. "Gainera, biak ongi aritzen dira errepidean ere".

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
LURRALDE MAILA IGOERA FASEA
Intxaurdi SKT - Ostadar SKT Igandea. 12:00. Donostian.
ERREGIONAL PREFERENTEA
Hernani - Ostadar SKT Larunbata. 16:30. Hernanin.
JUBENILEN OHOREZKO MAILA
Ostadar SKT - Ilintxa SD Larunbata. 17:15. Michelinen.
JUBENILEN LEHENENGO MAILA IGOERA FASEA
Ostadar SKT - Antzuola KE Larunbata. 15:30. Michelinen.
KADETEEN OHOREZKO MAILA
Tolosa CF - Ostadar SKT Larunbata. 10:30. Tolosan.
KADETEEN IGOERA FASEA
Ostadar SKT A - Zumaiaiko FT B Larunbata. 13:00. Michelinen.

ARETO-FUTBOLA
GIPUZKOAKO LEHENENGO MAILA
The Nest Hirukide- Isu Leihok Eguzki Larunbata. 20:30. Tolosan.
GIPUZKOAKO BIGARREN MAILA
Cecilia Frutadenda Eguzki - Ataun Troskaeta Ostirala. 20:30. Kiroldegian.
GIPUZKOAKO SENIOR LIGA
Trumoi Taberna Eguzki - Eskoriatza Larunbata. 16:00. Kiroldegian.
JUBENILAK
Bar Lasarte - Arantzazuko Ama Igandea. 11:15. Kiroldegian.
KADETEEN GIPUZKOAKO LIGA
Balardi Harategia Eguzki - Lauburu KE Ibarra Igandea. 09:30. Kiroldegian.
ARETO FUTBOLEKO XXXIV. TXAPELKETAKO 2. JARDUNALDIA
Izen Gabe- Patricio Cocktail Bar Larunbata. 09:30. Michelinen.
Trumoi Taberna- Avenida Taberna Larunbata. 10:30. Michelinen.

Txoko Taberna Autocares Luiscar- Bar Buenetxea Larunbata. 11:30. Michelinen.
Viña del Mar- Asador Irigoien Larunbata. 12:30. Michelinen.
SASKIBALOIA
SENIOR LEHENENGO MAILA
Eskoriatza KE - Ostadar SKT Ostirala. 20:15. Eskoriatzan.
SENIOR HIRUGARREN MAILA
Ostadar SKT - Easo Ostirala. 20:30. Kiroldegian.
JUNIOR ERRENDIMENDUA
Eskoriatza - Ostadar SKT Larunbata. 11:15. Eskoriatzan.
JUNIOR PARTIZIPAZIOA
Take Orbinox - Ostadar SKT Larunbata. 10:30. Usabal kiroldegian, Tolosan.
KADETE ERRENDIMENDUA
Ostadar SKT - Grupo Eme Oiarso Larunbata. 16:00. Kiroldegian.

KADETE PARTIZIPAZIOA
Ostadar SKT B- Super Amara Oiarso Larunbata. 09:30. Kiroldegian.
PILOTA
ESKUZ BINAKA UDABERRIKO TXAPELKETA
Aloña Mendi - Intza 2 Ostirala. 18:30. Oñatin.
Soraluze - Intza 1 Ostirala. 19:00. Soraluzen.
GIPUZKOAKO TXAPELKETA TRINKETEA
Intza - Eple Larunbata. 15:00. Iruran.
ERRUGBIA
OHOREZKO B MAILA
Ubu Colina Clinic - Babyauto Zarautz Larunbata. 16:30. Burgosen.
OHOREZKO A MAILA
Gernika RT - Hernani CRE Larunbata. 16:00. Gernikan.
IGERIKETA
GIPUZKOAKO ESKOLARTEKO TXAPELKETA

Alebinek lehiatuko dute. Larunbata. 16:00. Igandea. 09:50 eta 16:20. Azpeitiako Kiroldegian.
GIMNASIA ERRITMIKOA
SENIOR A TALDEKA
Bost pilotekin lehiatuko dute.
KADETE B
LOKE-Oriarte. Hiru uztai eta bi pilotekin arituko dira.
KADETE B
LOKE-Santa Teresa. Bi uztai eta bi pilotekin arituko dira.
SENIORRAK BAKARKA
Aizpea Arroyok, Garazi Gomezek, Ainara Apeztegiak eta Alazne Gonzalezek lehiatuko dute. Larunbata. 10:00. Azpeitian.
HERRI LASTERKETAK
ERREGETAKO KROSA
Raul Gomezek, Jon Altunak eta Mikel Ubegunek egingo dute lasterka. Igandea. 12:15. Donostian.

Martin eta Ibarburu, Euskal Herriko txapeldun


Luzera handiko Euskal Herriko txapelketa jokatu dute herrian, eta Buruntzaldea IKTko igerilariak bi txapela eskuratu dituzte. Bestetik, Ainhoa Martinek eta Paula Sevillanok Camargoko Nazioarteko Sarian lehiatu dute; txapeldun eta laugarren izan dira

Txintxarri

Igeriketaren festa handia jokatu dute Lasarte-Orian larunbat honetan, Euskal Herriko distantzia luzeko txapelketan. Maialen Chourraut kiroldegiko igerilekua lepo bete da, eta emaitza onak lortu ditu Buruntzaldea IKTk: Leire Martinek eta Iñigo Ibarburuk Euskal Herriko txapela lortu dute, 2.000 eta 3.000 metroko lasterketan, hurrenez hurren.

Infantiletan 2.000 metroko distantzia bete dute lehiakideek. Martinek ez du areriorik eduki, lehen metrotik aurreratu baita nabarmen, eta bigarrenari minutu bateko aldea ateratzen dio. 1:10 minutu 100 metroko bataz besteko abiadurari eutsi dio, eta 23:31,24 denboran gelditu du kronoa. Taldeko absolutu eta 15 urtez azpiko errekorra da hori. 1.500 metroan ere taldeko langa berria ezarri du igerilariak.

Nerea Santosek ere infantiletan egin du igeri, lehen



Leire Martin 2.000 metroko proban buruan egon da hasieratik. BURUNTZALDEA IKT

aldiz luzera horretako proba batean. Borja Apeztegia Buruntzaldea IKTko entrenatzailearen esanetan, "neurria hartzea" kostatu zaio hasieran, baina "bikain" aritu da. 28:08,89ko denbora egin,

eta 14 urtez azpiko taldeko errekor berria ezarri du.

Junior eta absolutuek 3.000 metroko lasterketa bete dute. Lasterketa gogorra eta estua jokatu du Ibarburuk. Lehen 2.000 metroetan bigarren postuan egon

da. "Indarrei eusten jakin dio, eta bere eskarmentua baliatu du", esan du Apeztegiak. Izan ere, 400 metroren faltan lasterketa burua harrapatu du, eta parez pare eutsi diote biek. Azken metroak izan dira gogorrenak. Lasterketa osoa 1:06-ko bataz bestekoan egin dute bi igerilariak, baina azken metroak 1:01-ko abiaduran egin dituzte. Azken 25 metroetan urazpiko luze bat egin du Ibarburuk, eta amaieran estutzea lortu du; 20 ehunekogatik lortu du txapela. 33:24,90 denboran amaitu du lasterketa, eta taldeko errekorra berritu du 2.000 eta 3.000 metroetan.

Lander Sorozabalek laugarren egin du junior kategorian, eta podiumetik oso gertu geratu da. 36:36,18 denbora behar izan du lasterketa osatzeko. Marka ona da Sorozabalentzat; 16 urtez azpiko errekor berriak ezarri ditu 3.000 eta 2.000koan.

Camargon ere, aurrean

Ainhoa Martin eta Paula Sevillano ez dira asteburuan Lasarte-Orian izan, zita garrantzitsua izan dutelako Euskal Selektzioarekin Camargon,

Kantabrian. Nazioarteko sari horren berezitasuna da bi distantzian lehiatzen direla igerilariak, eta puntuak batuz sailkapen nagusi bat osatzen dute.

Martin 200 eta 100 bular metroan aritu da, eta txapelketa irabazi du. 200 metrokoan marka pertsonala ondu du gazteak, eta Euskadiko errekorra txikitu du (2:36,76). 100 metrokoan ere nagusi izan da (1:14,70), eta nazioarteko saria gehitu du bere palmaresera.

Sevillano, aldiz, 200 eta 100 metro librean lehiatu da, eta goiko postuetan sailkatu da; laugarren, hain zuzen. Bietan marka pertsonalak lortu ditu Lasarte-Oriako gazteak, erakutsitako mailaren adierazgarri. 200 metrokoan 2:12,34ko denbora egin du, aurreko marka baino bi segundo gutxiago. 100 metrokoan ere bi segundotan jaitsi du bere errekorra (1:02,63).

Horrez gainera, Martinek 4x50 erreleboetan parte hartu, eta Euskadik bigarren postua eskuratzen lagundu du; 27,68 segundotan egin du bere zatia.



LOKE JUDO

Eizagirre eta Urdangarin, bikain

LOKEko Eneko Eizagirre eta Haritz Urdangarin judoek junior mailako Euskadiko Txapelketan lehiatu dute, Hernanin. Biek lan ederra egin dute. Eizagirre finalera iritsi den arren, ezin izan du urrezko domina kolkoratu. Urdangarinek, berriz, hirugarren postuko norgehiagoka irabazi eta brontzeko domina eskuratu du. Infantilek ere jardunaldia izan dute, eta ederki ibili dira.

Baloia, ekainera arte mugimenduan

Herriko areto futbol txapelketaren 35. edizioa hasi da. Bederatzi taldek eman dute izena, eta horietatik zortzik lehiatu dute estreinako jardunaldian. Insausti-Kattagorri eta Asador Irigoien taldeek jokatu dute aurreneko partida. Nagusi izan da Insausti-Kattagorri, eta 0-34 irabazi dute. Asador Irigoien taldeak ezin izan ditu bost jokalaririk bildu, eta laurekin aritu behar izan du.

Orekatuagoa izan da Avenida Taberna eta Izen Gabe taldeen arteko neurketa. Banakoarekin joan dira atsedendira, baina bigarrenen ezin izan diote markagailuari eutsi Avenidakoek, eta 1-5 galdu dute.

Lehenengo jardunaldiko beste bi emaitzak: Babeslerik Gabe 3-1 Viña del Mar eta Txoko Taberna Autocares Luisar 1-5 Trumoi.



Inauterietako gehigarria otsailaren 9an

Bertan zure zerbitzuak iragarri nahi dituzu? Jar zaitez gurekin harremanetan!

txintxarri

publicitate@ttakun.eus

943 37 14 48 (106) • 646 82 44 66

Jepkemeik eta Ayalewk, garaile hipodromoan

Daisy Jepkemei keniarra eta Aweke Ayalew bahreindarra izan dira azkarrenak 63. Nazioarteko Krosean. Emozioa, kirol giroa, eta lokatza: ez da ezer falta izan hipodromoan. Jende ugari gerturatu da kirol ekitaldiaz gozatzer



Daisy Jepkemei, emakumezko garailea, gainerako sailkatuekin, sariak jasotzen. TXINTXARRI

Iñigo Gonzalez

Atletismo goiz ederra izan zen igandekoa. Eguzkia zeruan, lokatza zoruan, eta hainbat atleta lasterka, egurrean. Gazte zein heldu, kirol ikuskizun bikaina eskaini dute guztiek. Senior mailan, Daisy Jepkemei kenyarra eta Aweke Ayalew bahreindarra izan dira bizkorrenak.

Emakumezkoak 12:30ean hasi dira lasterka. Ruth Jebetek, Daisy Jepkemeik eta Norah Tanuik erritmo bizia ezarri dute hasieratik, eta berehala ireki dute tartea. Ia bukaeraraino joan dira elkarrengandik oso gertu, baina azkenean Jepkemeik metro batzuk atera dizkie Tanuiri eta Jebet faborito nagusiar. Azken honek arazoak izan ditu ibilbideko lokatzarekin, behin baino gehiagotan labaindu eta erori baita.

Dena dela, ikuskizun ederra eskaini dute atleta guztiek. 27 minutu eta 52 segundo behar izan ditu Jepkemei kenyarrak ia bederatzi kilometroko ibilbidea osatzeko. Hemezortzi segundora

sartu da Tanui, eta 57ra Rebet. Teresa Urbina sailkatu da laugarren, eta Carmen Valero saria irabazi du. Aurreneko euskalduna Ainhoa Sanz izan da. Hori dela eta, Belen Azpeitia saria eraman du etxera. Aipatu bost atleta horiek igo dira podiumera, eta argazkia atera dute elkarrekin, irribarretsu, ongi egindako lanaren satisfazioarekin.

Sari banaketa bukatu eta berehala iritsi da gizonezkoen txanda. Aweke Ayalew bahreindarra zen faboritoa, eta aurreikuspenak bete ditu. Ilias Fifi, Yasin Haji, Polat Kemboi eta Ayalew beraren artekoa izan da dema: hasieran atzean geratu da irabazlea, baina ederki eman dio buelta egoerari, eta beste hirurak harrapatu ditu. Hortik aurrera, ia elkarrekin egin dituzte hainbat kilometro. Kemboi geratu da atzean aurrena, eta Haji gero. Azkenean, Ayalew izan da azkarrena; bi segundora sartu da Haji, eta hamaseira Fifi. Fifik berak Mariano Haro saria irabazi du, eta Miguel Maiz Saria Ander

Sagarzazuk, helmugara iritsi den lehenengo euskalduna izateagatik.

LOKE kirol taldeko hainbat gazteto egurrean aritu dira, lan oso txukuna eginez. Gustura geratu dira Amaia Andres eta Oscar Goikoetxea entrenatzaileak.

Herrikoia Krosera

Gipuzkoako Atletismo Federazioak eta Euskal Camping Elkarteak, hamabi kilometrotako lasterketa antolatu du Donostiako Nazioarteko Krosera bultzatzeko. Raul Gomez Margallo lasarteiatarrak parte hartu du proban, eta orain bi urte bezala, lehen postua eskuratu du. 44 minutu eta 29 segundo behar izan ditu aurten Donostiatik Hipodromora arteko bidea egiteko.



Zenbait emakume lasterketan. TXINTXARRI



Aweke Ayalew faborito zen, eta berak eskuratu du lehen postua. TXINTXARRI



Emakumezkoen sari banaketa amaitzean hasi da gizonezkoen proba. TXINTXARRI



Hamasei urtez azpiko kategorian Aimar Sukunza herritarrek zazpigarren egin du. TXINTXARRI

ZORION AGURRAK



Ekai
Zorionak gure sagutxo polita, eta oso ondo pasa zure 4. urtebetetzean! Muxu potoloak ama, aita eta Sienaren partetik. Asko maite zaitugu!



Unax
Zorionak pottolo zure lehenengo urtebetetzean, eta muxu handi bat familia guztiaren partetik.



Mikel
Zorionak txapeldun. Segi horrela. Asko maite zaitugu.




Maider
Maider, printzesa! Zorionak zure zortzigarren urtebetetzean! Ondo pasa egun berezi honetan. Familiaren partetik muxu handi bat.



Mateo
Zorionak Mateo txapeldun. Ondo pasa zure zortzigarren urtebetetzean. Familiaren partetik muxu handi bat.



Aizpea
Zorionak printzesa!!! 6 muxu potolo zuretzat. Unai, Hodei, aitatxo ta amaxo.



Ane Miren
Zorionak etxeko sorgintxoari. Muxu potoloa denon partetik.



Oier
Zorionak txapeldun!!! Prestatu birrikak zortzi kandelak itzaltzeko. Muxu handi bat familiaren partez. Asko disfrutatu!!!

OHARRAK

Haurrei oinarritzko lehen sorospenak egiteko ikastaroa

Gurutze Gorriak haurrei oinarritzko lehen sorospenak egiteko ikastaroa eskainiko du Lasarte-Oriako egoitzan. Saioa haur eta umetxoak edozein egoeratan sorosten ikasi nahi dituen edonori zuzendurik dago, baita helduei ere. Bertan, egoera larrietan nola jokatu erakutsiko da, hala nola, odoljarioak, ezta errikeriak ere. Erakutsiko da, ezta errikeriak ere. Erakutsiko da, ezta errikeriak ere.

Ikastaroak 10 ordu iraungo ditu eta saioak hiru egunetan izango dira: otsailaren 14 eta 21, 15:00etatik 18:30era eta otsailaren 28an, 15:00etatik 18:00etara.

Informazio gehiago eskuratu edota izena emateko lasarte.formación@cruzroja.es helbide elektronikora mezu bat bidali behar da edo 943 10 30 22 zenbakira deitu.

Izen ematea mugatua da eta ikastaroa gaztelaniaz eskainiko da.

Santa Eskea

Zabaleta Auzolan elkarteak kideek, auzotarrak gonbidatzen dituzte Santa Ageda bezperako eskean parte hartzera. 10:30ean aterako dira Antonio Blas plazatik. Bazkaria ere izango da Solla Enea sagardotegian. Entsegua gaur, otsailaren 2an, 19:30ean da.

Galizia eta Portugalera bidaia

Biyak Bat elkarteak bidaia antolatu du Galizia eta Portugalera iparraldera, maiatzaren 27tik ekainaren 5ra.

Elkarteko bazkideek 530 euro ordaindu behar dituzte; bazkideak ez direnek, berriz, 580 euro.

Izena ematea elkarteak bulegoan egin behar da astelehenean ostiralera 10:30etik 12:30era.

GUTUNAK

Inertziak apurtzeko ariketa**IKER MARTINEZ DE LAGOS****EUSKALTZALEEN TOPAGUNEN KIDEA**

Euskal Herriko zazpi lurraldeetan, batera, herritarren aitzindaritzatik, era guztietako erakundeek babesarekin, aldaketa zehatzak lortzera bideratutako ekimen praktikoa. Horrela laburbildu daiteke 2018an herriz herri antolatzen ari den Euskaraldia, duela bi hilabete Euskal Herri osoko hainbat eragile sozialek eta erakunde publikok aurkeztutako ekimena.

Herrigintza tradizio luzea dugu gurean. Hizkuntzaren aldeko borroka komunitatearen garapenerako tresnak sortzera bideratzen asmatu izan dugu. Orain, hizkuntza komunitate modura ditugun desafioei erantzuteko momentu erabakigarriari gaude. Euskaraldia kate luze baten katebegi izateko jaio da; biziraupenaren aldeko borrokan egotetik garapenean dagoen komunitate bat lortzera bideratu nahi dugu. Beste egitasmo askorekin batera nahi genuke Euskaraldia.

Herriz herri euskaldunok ahalduzko hedatu diren ekimenetan du oinarria Euskaraldiak. Bestela esanda, euskaltzale askoren erabaki pertsonal eta kolektibotik dator. Gutxiengo izatearen konplexuak alde batera utzi, eta euskaraz bizitzeko nahia beren bizitzan praktikara eramateko erabakia hartu dute milaka lagunek jadanik (Agurainen, Egian, Lizarran, Baionan, Arrigorriagan,...). Inguruko harreman sareetako hizkuntza portaerak aztertu, eta inertziak bestelako hizkuntzatan dituzten harremanak euskarara ekartzeko hautua egin dute; eta hautua praktikara eraman. Hau modu kolektiboan egitea erabaki dute, denek batera, elkar babestuz eta mezu bateratua zabalduz: gu euskaraz bizitzera goaz! Horretarako, Euskal Herrian hedatzen ari den errealitatea baliatu dute: gero eta jende gehiago da euskara ulertzeko gai. Hau ez da ekimen sinboliko bat, ohiturak aldatu eta harremanetan inertziak apurtzeko ariketa sozial praktikoa da.

Mugimendu herritarra izan da hau eta aurrezantzean ere horixe izango da Euskaraldia:

herritarren eragiletzan eta aitzindaritzan oinarritutako ekimena. Ehunka boluntario eta aktibista ari dira jadanik lanean herriz herri, euskaltzaleen batuta eta hizkuntzarekiko konpromisoa ipar modura hartuta. Sarea zabaltzen ari da eta ahalduzko hau da hizkuntza komunitatearen etorkizunaren berme nagusia.

Eta zein da erakunde funtzioa guzti honetan? Babestea, herritarrek martxan jarri dugun dinamika honi babes neurriak gehitzea. Era guztietako erakundeak batu nahi izan ditugu Euskaraldira. Euskalgintzan ari garenen eta erakunde publikoen arteko aliantza argi bistaratu da, baina gizartearen eragina duten gainontzeko entitate guztiak ere interpelatu nahi ditugu: erabilera ez da norbanako kontu hutsa, erakundeek espazio horiek babestu eta euskararen erabilera bultzatzeko testuinguruak sortu behar dituzte. Horregatik, erakunde funtzioa ez da ekimenari atxikimendua ematea soilik, inguruan eragin eta praktika sozial berriak sortzeko ardura ere eskatzen zaie.

Beste helburu bat ere badugu: euskalgintzatik nekez heldu izan garen gizarte sektoreetara heltzea. Auzi hau ez da euskaltzale aktiboen kontua bakarrik. Era guztietako entitateak nahi ditugu horretan bidelagun.

Eta, hau, Euskal Herriko zazpi herrialdeetan batera. Aspaldiko urteetan gutxitan ikusi dugun zerbait da, lurralde guztietako euskaltzaleak eta erakundeak batera, norabide berean, lanean. Herriz herri hedatzen joan diren ekimenek orain arteko mugak gainditzeko gaitasuna erakutsi dute. Euskal Herri osoan proposamen baten bueltan hainbat lagun gogoiz lanean ikustea handia da!

Herriz herri dinamika aberatsetatik badugu zer ikasia Euskal Herria lan eremutat dugun erakunde eta eragileek. Hausnarketa partekatua egitetik harago, urratsak batera ematera jotzea kosta egiten zaigu herri honetan. Eta urratsak ematen hasita, aukera baliatu beharko genuke anbizioz emanak, eraikitzaileak, sakonak eta atzera bueltarik gabek izan daitezken. Eta, batez

ere, urratsak beste batzuen atariko eta lorpen berrien abiapuntu izan daitezken.

Azaroaren 23an Euskaraldiaren aurkezpenean edo Korrikan, Santiago zubian, egindako argazkiak ez dira irudi hutsak, euskalgintzari norabide berritua ematen dioten sakoneko mugimenduak dira, elkarlan eta konplizitate berrien bila egiten diren proposamenak. *Euskal Herriko zazpi lurraldeetan, batera, herritarren aitzindaritzatik, era guztietako erakundeek babesarekin, aldaketa zehatzak lortzera bideratutako ekimen praktikoa.* Argazkia baino gehiago da hori.

Herritarren nahiari galga jartzen dioten inertzia zaharrak apurtzeko momentua da. Ekintza sinbolikoetatik urrats praktikotara pasa, ezagutza hazten jarraitu, harremanetan sakoneko aldaketak sortu, eta pertsonen zein erakundeen ohitura eta inertziak apurtzeko garaia da. Honen bueltan ari diren herritar guztien indarrak aldaketa handia sortuko du, ez daukagu zalantzarik. Biba zuek!

Go! azen



Bazkideztza informazioa

Ttakuneko bazkideen artean Go! azen ikuskizunerako 2 sarrera zozkatuko ditugu!

Zozketan sartzeko, OTSAILAREN 5era arte izena eman dezakezu Ttakunen sare sozialetan, harpidetza@ttakun.eus-en, 646 82 44 66 whatsapp-ean, edota bulegoan*

*Ostiral arratsaldean eta astelehenean goiza harrera itxita dago



@TtakunKE

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALMENTA
Garajea salgai Andatza plazan. 23,18 m². 635 702 404.

ERRENTAN EMAN

Garaje marra alokatzen dut Atsobakarren, Golf plazan, Garaikoetxea eskolaren parean. Autoarentzat edo motorrarentzat egokia.

Handia eta sarbide onarekin. 659 02 19 45

ERRENTAN HARTU

Etxe txiki baten bila gabiltza. 603 194 658

LANA

Neska bat behar da ileapaindegian lan egiteko, Lasarte-Orian.

Interesatuak deitu 615 781 116 telefonora.

Barazar tabernak zerbitzaria behar du asteburuetarako.

Euskalduna bada, hobeto. Telefonoa: 678 188 818.

ESKAERA

Emakumea eskaintzen da etxeko garbiketa lanak egiteko. Externa edo orduka. Esperientzia du. 722 555 027

Adineko pertsonak zaintzen esperientzia duen emakumea interna gisa lana egiteko prest. 631 464 176.

HEZKUNTZA

ESKAITZA

LH eta DBHko klase partikularrak edota euskara errefortzurako klaseak emateko prest nago, goizez nahiz arratsaldez. 680 967 368.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 2 GANDARIAS-URIBE
Larunbata, 3 DE MIGUEL
Igandea, 4 DE MIGUEL
Astelehena, 5 ORUE
Asteartea, 6 DE MIGUEL
Asteazkena, 7 LASA
Osteguna, 8 GIL

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00


ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Castilla-Larburu: Urbieta kalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira. Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

JAIOTAKOAK

Anaitz Ramos Robredo. Urtarrilaren 19an.

HILDAKOAK

Arantxa Rezabal Irazusta. Urtarrilaren 29an.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKIJONA KULTUR ETXEA: 943 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTERI AEK: 943 372 863

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINAK: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

ESKELAK

ESKELAK JARTZEKO:
Txintxarri erredakzioan
943 37 14 48

- ▶ Hileta egunean eskela txintxarri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Txintxarri paperean 90€
- ▶ Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + txintxarri.eus-en: 90 €
- ▶ Eskela mota guztiak paperean: 80 €

Txintxarri: doan eta euskaraz Lasarte-Oriako etxe guztietan

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Erredakzioa

Nerea Eizaguirre, Inigo Gonzalez,
Maddi Noriega eta Adrian Garcia.

Publizitatea

Aranbxi Zulaika.

Laguntzaileak

Unai Muñoa, Gorka Laso,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Gorka Alvarez,
Jexux Artetxe, Maider Galardi,
Mikel Yarza, Nerea Segura eta
Aizpea Amas.

Informatikoa

Asier Aztiria.

Administraria

Nerea Garziarena.

PUBLIZITATEA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zerua Multimedia, S.A.

Lege Gordailua:

SS-513/94
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

LAGUNTZAILEAK



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza



Gipuzkoako Foru Aldundia

DBHko IKASLEEN ONARPENA | 2018-2019

Epea: Urtarrilaren 29tik otsailaren 9ra

www.oriarte.eus

ORIANTE BHI

Instituto bat, bi eraikin

1. eta 2. DBH

Landaberri eraikina

Pintore kalea, 2
20160 LASARTE-ORIA
Tel.: 943372890

info@oriarte.eus

1. DBHrako BILERA:
Otsailaren 7an arratsaldeko 18:30etan.

IDAZKARITZAKO ORDUTEGIA:

Astelehenetik ostiralera
08:30etatik 11:30etara
Astelehena, asteartea eta ostegunetan arratsaldez
14:30etatik 16:00etara

3. eta 4. DBH

Larrekoetxe eraikina

Buenos Aires aldapa, 1
20160 LASARTE-ORIA
Tel.: 943372852 | 943372277

info@oriarte.eus

IDAZKARITZAKO ORDUTEGIA:

Astelehenetik ostiralera
09:00etatik 13:30etara
Astelehenetik ostegunera arratsaldez
14:30etatik 16:30etara

- 12-18 urte bitarteko hezkuntza-eskaintza D ereduaren.
- Euskal kultura eta euskara bultzatzen dituen.
- Aniztasunaren trataera: Hezkuntza Berriaz Sendotzeko Programa (HBSP), Pedagogo Terapeutak (PT), Aniztasun Curricularreko taldeak (AC), Bidelaguna (eskolaz kanpoko laguntza), laguntzako irakasleak, Hizkuntza Indartzeko Proiektuko Irakaslea (HIPI) eta Orientatzaileak.
- Teknologia berrien erabilera. Baliabide digitalak eta ikasgela guztietan sareko konexioa.
- Atzerriko bigarren hizkuntza aukeran.
- Jangela zerbitzua.

